



2002/05/06ko prentsa-oharra

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko martxoa**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA %2,1 HAZI ZEN 2002KO LEHEN HIRUHILEKOAN

Martxoko hazkundera, balio homogeneousan, %5,9koa izan da

2002ko martxoan, %10,2 jaitsi zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko urteko hil beraren aldean, urte horrek aurreko ekitaldian baino lau lanegun gutxiago eduki baititu, Eustaten datuen arabera. Behin lan-egutegiaren eragina zuzenduz gero, datuak balio homogeneousan konparatu ahal izateko, martxoko urteko arteko tasak %5,9ren aldakuntza positiboa eskaintzen du. Datu horiekin, urteko lehenengo hiruhilekoko tasa metatuak %2,1en gehikuntza lortu du, aurreko urteko aldi beraren aldean.

2002ko martxoan, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio* *fintzea* (%26,4), *elikagai-industria* (%23,2), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%22,4), *garraio-materiala* (%15,5), *larruaren eta oinetakoen industria* (%14,1) eta *zurgintza* (%11,6).

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak izan dituzten sektoreak *ehungintza eta jantzigintza* (%-12,2), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%-3,2) eta *ez-metalezko industria* (%-2,6) izan dira.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2002ko lehen hiruhilekoan, gehiago igo dira *kontsumo-ondasunen* (%3,2) eta *ekipo-ondasunen* (%3,0) tasak, ezen ez *bitarteko ondasunei* dagokienak (%0,6).

Industri Produkzioaren Indize Orokorraren portaera berdintsua izan da Araban (%6,9) eta Bizkaian (%6,3), eta zertxobait txikiagoa izan da Gipuzkoako urte arteko tasa (%4,8) azken hilean, martxoan. Lehen hiruhilekoko hazkunde metaturik handiena Arabari dagokio (%3,3), Gipuzkoaren (%1,9) eta Bizkaiaren (%1,7) gainetik.

Taula: 2002ko MARTXOA. Hazkunde-tasa (%). Industri Produkzioaren Indizea. Euskal AE.

Azalpena	Aurreko urteko hil beraren aldean	Datu zuzenduak, aurreko urteko hil beraren aldean (*)	2001eko urtarril-martxoko tasa metatua (*)	2002ko urtarril-martxoko tasa metatua (*)
Indize orokorra: Euskal AE	-10,2	5,9	-0,5	2,1
Araba	-10,0	6,9	-1,7	3,3
Bizkaia	-8,8	6,3	-1,4	1,7
Gipuzkoa	-11,7	4,8	1,1	1,9
Indizeak sektore-zatiduraka				
- Euskal AE:				
Ateratze-industriak	0,1	22,4	10,7	11,6
Manufaktura-industria	-10,7	6,7	-0,5	1,7
Energia elektrikoa, gasa eta ura	-4,8	-3,2	-1,4	5,6
Indizeak helburu ekonomikoka - Euskal AE:				
Bitarteko ondasunak	-10,5	4,0	2,2	0,6
Kontsumo-ondasunak	-10,8	5,8	-1,4	3,2
Inbertsio-ondasunak	-10,6	9,1	-6,7	3,0

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz Tel: 945-01 75 00 Fax: 945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel: 945-01 75 14 Fax: 945-01 75 01 Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---